

DEIALDIA

Gourmets 2016

Madril

Egunak: 2016ko apirilak 4tik 7ra.

Lekua: IFEMA Juan Carlos I. Azoka
Esparrua, Madril.

Maiztasuna: Urtero.

Norentzat: nekazaritza eta elikadura
industriako profesionalentzat.

Izen-emate epea:
2015ko urriak 27a.

Azokaren web orria:
www.gourmets.net

Informazio gehiago: Tel.: 943 00 03 00
Jon Zabaleta: jzabaleta@camaragipuzkoa.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte-hartze eredu eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izen-emate fitxa



Euskal Elikadura Industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan, GOURMTES 2016 azokarako, horren hogeita hamargarren edizioan, euskal enpresen parte-hartze taldekatua antolatu du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak.

Azoka **Madrilen** izango da, 2016ko **apirilaren 4tik 7ra**.

Gourmets 2016 azokaren Izaera

Erakusketa eremua: 18.976 m² (aurreko edizioko datuak)

2015ko erakusketariak: 1.164 profesional

2015ko bisitariak: 34 herrialdetako ia 80.000 bisitari

Azokaren web orrialdea: www.gourmets.net

Kalitatezko Elikagai eta Edarien Gourmet Azoka gertakari aitzindaria da Espainiako Gastronomian; nazioartekoa eta profesionala da, eta kalitate handiko elikagai eta edariei eskainita dago.

Goi mailako nekazaritza-elikagaien ekoizle eta kontsumitzaileen arteko topagunea da, eta goi mailako kalitateko Europako gastronomia

sektorearen erreferentziako azoka profesionala bihurtu da.

2015. urtean, 1.164 erakusketarik hartu zuten parte 18.976 metro koadroko erakusteremu batean, eta 34 herrialdetako 80.000 bisitari inguru izan zituen.

Azoka egunak: Astelehen, astearte eta asteazken, 10:00etatik 19:00etara.
Ostegunean, 10:00etatik 17:00etara.

Lekua: IFEMA erakustazoka, Madril.

Maiztasuna: Urtean behin.

Norentzat: hainbat banaketa-kanaleko profesionalak (inportatzaileak/esportatzaileak, banatzaileak, prozesatzaileak, banatzaile handiak eta HO.RE.CA kanaleko espezialistak). Jatetxeen jabeak eta kalitatezko elikaduraren segmentuko espezialistak.

Erakusteremua: 18.976 m².

2015ko parte-hartzaileak: 34 herrialdetako ia 80.000 bisitari eta 1.164 erakusketari.



Parte-hartze baldintzak

[Joateko konpromisoa](#)

[Euskal Herriako produktuak](#)

[Ebaluazio-inkesta](#)

Egoitza soziala Euskal Herrian duten eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden **ekoizpen-enpresek** bakarrik parte har dezakete ekintza honetan.

Azoka baino lehen:

- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman.** Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.
- Enpresek derrigor egon behar dute bertan muntaketa-egunean, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta erakusmahaiak azokaren inaugurazioa hasi baino dezente lehenago dekoratzeko.


Azokak iraun bitartean:

- Ikusgai jarriko diren produktuak **Euskal Herrikoak** izango dira.
- Azokak iraun bitartean erakusmahaiak egunero eta ordutegi osoan zainduko da.
- Azoka amaitutakoan, produktu guztiak behar bezala jasoko dira eta erakusmahaiaren elementuak jasotako baldintzetan itzuliko dira.

Azokaren ondoren:

- **Ebaluazio-inkesta** bete, eta azoka utzi baino lehen eskuz entregatu.

Parte-hartze eredua eta kostua

[aurkibidera itzuli](#) 


Parte-hartze eredua

2016ko edizioan, parte hartzeko interesa duten kalitatezko nekazaritza-produktuen enpresak hartuko dituen pabilioi batekin izango da bertan Eusko Jaurlaritza.

2015eko esperientzia positiboaren ondoren, stand partekatuen kontzeptu berriarekin, 2016an ondorengo parte-hartze eredu hauek eskainiko dira:

- **Erakusmahai PARTEKATUA**ren eredua: eremu komuna enpresen artean bereizgailurik gabe. Stand eredu horrekin parte hartzen duten enpresek kontuan eduki behar dute lekua dela eta ezingo dutela euren tokian hozkailu-bitrinarik jarri, ezta dekorazio-elementu osagarriarik ere.
- **BANAKAKO erakusmahaiaren** eredua.
- **Erakusmahai BIKOITZA**ren eredua.

Oharra: enpresa parte-hartzaileen kopuruak baldintzatuko du stand bikoitzen eta partekatuen banaketa.

[jarraitu](#) 

Parte-hartze eredua eta kostua

Parte-hartze kostua

GOURMET 2016 azokan, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektoreko produktuak transformatzen eta komertzializatzen dituzten enpresen parte-hartzea sustatuko du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak.

Jarraian, parte-hartze kostuaren gaineko diru-laguntzen inguruan egingo den sailkapena adieraziko da.

1. MOTAKO ENPRESA

Nagusiki Euskal Herriko lehengaiez hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorriaren egiaztatu beharko du.

Enpresa horiek %70eko diru-laguntza edukiko dute Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta honela geratuko dira kostuak:

Erakusmahai partekatua:

969 € + BEZa = 1.172,49 €

Banakako erakusmahaia:

1.938 € + BEZa = 2.344,98 €

Erakusmahai bikoitza:

3.876 € + BEZa = 4.689,96 €

2. MOTAKO ENPRESA

Euskal Herririk kanpoko lehengaiez hornitzen diren enpresak, tokiko lehen mailako produktorik ez badago, betiere.

Enpresa horiek %50eko diru-laguntza edukiko dute Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta honela geratuko dira kostuak:

Erakusmahai partekatua:

1.615 € + BEZa = 1.954,15 €

Banakako erakusmahaia:

3.230 € + BEZa = 3.908,30 €

Erakusmahai bikoitza:

6.460 € + BEZa = 7.816,60 €

3. MOTAKO ENPRESA

Nagusiki Euskal Herriko produktuez hornitzen ez diren enpresak, nahiz eta tokiko lehen mailako produkzioa egon.

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza %30ekoa izango da, eta honela geratuko dira kostuak:

Erakusmahai partekatua:

2.260 € + BEZa = 2.734,60 €

Banakako erakusmahaia:

4.520 € + BEZa = 5.469,20 €

Erakusmahai bikoitza:

9.040 € + BEZa = 10.938,40 €

Parte-hartze kuota bi zatitan ordainduko da, baina faktura bakarra izango da.

- %50 + BEZa (%21), izena emateko unean eta leku erreserba gisa.
- Gainerakoa, azoka baino 60 egun lehenago ordainduko da.

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

[Izen-emate fitxa, behar bezala beteta](#)

[Ordainketa-egiaztagiria](#)

[Izena emateko azken eguna: 2015ko urriaren 27an](#)

Leku-kopurua mugatua denez, parte hartzeko interesa baduzu izen-emate fitxa behar bezala beteta lehenbailehen bidaltzeko gomendatzen dizugu; **943 000 267** faxera edo **jzabaleta@camaragipuzkoa.com** helbide elektronikora bidali, Jon Zabaletaren izenean.

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agirien jasotze hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaera aitzat hartzeko, honako agiri hauek bidali behar dituzu, posta elektronikoz, adierazitako helbidera:

1. Honekin batera doan izen-emate fitxa, behar bezala beteta.

Fitxa horretatik hartuko dira azokako katalogo ofizialerako eta gainerako promozio-ekintzetarako datuak.

2. Lekua erreserbatzeko kuotaren ordainketa-egiaztagiria.

Parte-hartze kuota bi zatitan ordainduko da, baina faktura bakarra izango da.

- %50 + BEZa (%21), izena emateko unean eta leku erreserba gisa.
- Gainerakoa, azoka baino 60 egun lehenago ordainduko da.

Kontzeptua: "Enpresaren izena + GOURMETS 2016".

Kontu zenbakia: ES49-3035-0179-61-1791069900 HAZI Fundazioaren izenean (LABORAL KUTXA). Laboral Kutxaren Bica: CLPEES2MXXX.

Izena emateko azken eguna: 2015ko urriaren 27an.



Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

HAZI FUNDAZIOAren Finantza Sailak bidaliko du **dagokion zenbatekoaren faktura parte-hartzea egiaztatu ondoren.**

Lekua erreserbatzeko ordainketa egiten denean egingo da faktura.

GARRANTZITSUA:

Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea; Sailak jakinaraziko du izen-ematea onartu den edo ez.

EUSKAL HERRIKO PABILOIAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertzeko eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.


Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Enpresa erakusketariak eskatutako espazioa Azokaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzari emandakoa baino handiagoa bada, enpresa hautatuak eskubidea edukiko du alde aurretik ordaindutako izen-emate kuota itzul diezaioten.
- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaieten.

Bidaia eta ostatu hartzea

Ekintza honetan **ez daude sartuta** joan-etorri eta ostatu gastuak. Dena dela, Saila enpresen zerbitzura dago bidaia eta ostatua koordinatzen laguntzeko, enpresa erakusketariak hala eskatuz gero.

Eskeinitako zerbitzuak

[aurkibidera itzuli](#) 

[1\) Eremuaren kontratazioa](#)

[2\) Pabiloiaren dekorazioa](#)

Eusko Jaurlaritzak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

[Eremuaren kontratazioa](#)

Enpresa erakusketari bakoitzarentzat pertsonalizatutako standetan (banakakoa, bikoitza edo partekatua) banatutako sustapen-eremu batean parte hartuko da.

[Pabiloiaren dekorazioa](#)

Erakusmahaiaren dekorazioa eta oinarrizko elementuak berdinak izango dira Euskal Herriko pabiloiko erakusketari guztientzat; honako hauek, alegia, eta stand indibidualarekin parte hartzen duten erakusketariak ondorengo hauek edukiko dituzte:

- Mahai bat eta lau aulki.
- Mostradore bat.
- Enpresa erakusketariaren errotulua.
- Konexio elektrikoa.
- Biltegia harraskarekin.
- Enpresaren batek hozte-bitrina behar badu bere produktuak ikusgai jartzeko, enpresa erakusketariak berak kontratatuko du hori (hozte edo izozte bitrina), eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberari horren berri eman.

Stand partekatuan (enpresen arteko bereizgailurik gabe) parte hartzen duten enpresen kasuan, berriz, hauxe izango da oinarrizko ekipamendua:

- Mostradorea eta taburetea.
- Enpresaren errotulua.
- Konexio elektrikoa.

Eta stand partekatuan parte hartze duten gainerako enpresekin batera:

- Eremu komuna, bileretarako mahaiekin.
- Baterako biltegia.
- Erabilera komunitarioko harraska.

Stand partekatuko eremu honetan, enpresek kontuan eduki behar dute lekua dela-eta ezingo dutela hozkailu-bitrinarik jarri.

Eskainitako oinarrizko altzarien aldaketa eta gehitzea enpresa erakusketariaren kontura izango da.

[jarraitu](#) 

Eskeinitako zerbitzuak

3) Pabiloia mantentzeko lanak

4) Hotz-kamerak

5) Salgaien garraioa

6) Katalogo ofizialean sartzea eta bilera-agendetan parte hartzea

Pabiloia mantentzeko lanak

Eusko Jaurlaritza arduratuko da pabiloiaren mantentze-lanez, oro har, eta beharrezko zerbitzuak kontratatzeaz (ura, elektrizitatea, garbiketa...).

Potentzia-muga batzuk egongo dira stand bakoitzeko eta erakusketariren batek mua horiek gaindituz gero, horri egotziko zaio kostua.

Hotz-kamerak

Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du hotz-kameren kontratazioa. Zerbitzu horren finantzaketa erakusketari bakoitzaren kontura izango da.

Salgaien garraioa

Eusko Jaurlaritzak erakusgai jarriko diren gaien baterako bidalketa antolatuko du, izendatutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik stand bakoitzeraino.

Zerbitzu horren kontratazioa banakakoa izango da, eta garraio-enpresak zuzenean fakturatuko dio zerbitzua erabiltzen duen erakusketari bakoitzari.

Katalogo ofizialean sartzea eta bilera-agendetan parte hartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapide guztiak egingo ditu Euskadiko pabiloian parte hartzen duten enpresek isla egokia eduki dezaten azokako katalogo ofizialean. Horretarako, izen-emate orrian emandako informazioa erabiliko da.

Atzerriko erosleekin bilera-agendetan parte hartzeko interesa erakutsi duten enpresak hautatzeko ere erabiliko da informazio hori.

Izen-emate fitxa

Gourmets 2016

aurkibidera itzuli



GOURMETS 2016 azokako Eusko Jaurlaritzaren erakusmahaian egon nahi dut, ondorengo moduan:

Erakusmahaia partekatua Banakako erakusmahaia Erakusmahaia bikoitza

Enpresaren izen soziala:

Erakusmahaiaren errotulua:

I.F.K.:

Nek. eta Elik. Ind. Erregistroa (R.I.A.):

Enpresaren izena, KATALOGO OFIZIALERAKO:

Helbidea:

Kalea / Plaza / Hiribidea:

P.K. – Herria:

Probintzia:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Faxa:

Web orria:

Parte hartuko duen pertsona:

Sakelako telefonoaren zenbakia:

Erakusgai jarriko diren produktuak eta markak:

Produktua

Marka

Data, sinadura eta enpresaren zigilua:

Faxeiz itzuli **943 000 267** zenbakira, edo posta elektronikoa bidez **jzabaleta@camaragipuzkoa.com** helbidera, **2015eko urriaren 27a baino lehen**, transferentziaren kopia erantsita (bankuko egiaztagirian "Enpresaren izena + GOURMETS 2016" adierazi).